



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 6koa. Horren bidez, Lanbideri gomendatzen zaio Enpresen Sorkuntzaren gaineko diru-laguntza itzultzeko betebeharra aitortzen duen ebazpena berrikusteko.**

### Aurrekariak

- 1- XXXX jaunak diru-laguntza eskatu zuen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuaren babespean, zehazki langabezia dauden pertsonen enpresa-egitura berriak sortzeko.

Arau horren IV. kapituluak, enpresa-egitura berrien sorkuntzari buruzkoak, hainbat ataletan azaltzen du zein jarduera sustatuko diren, horretarako betekizunak zeintzuk diren (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eman behar da alta deialdia indarrean jartzen denetik aurrera), zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, zenbatekoak eta aurkeztu beharreko agiriak. Kapitulu honek deialdiaren kudeaketa eta ebazpenari buruzko alderdiak arautzen ditu eta, amaitzeko, ordaintzeko modua zehazten du, honako aurreikuspenarekin:

45. artikulua.- Ordaintzeko modua eta laguntzen justifikazioa.

*1.- Ondoko formulari jarraiki ordainduko da diru-laguntza: diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren %50 hura ematerakoan, eta gainerakoa behin urtebete igaro ondoren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako alta-egunetik, enpresak jarraitzen duela egiaztatzen duen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako alten eta baje ziurtagiri eguneratua aldez aurretik aurkeztuta, eta banakako enpresaburuaren edo hark dirulaguntza haiengatik jasotzen duen bazkide langile bakoitzaren lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratuarena, langileek enpresan jarraitzen dutela egiaztatu behar duela kontuan izanda.*

- 2- Lan eta Trebakuntzako zuzendariaren 2009ko uztailaren 2ko ebazpenaren bidez, interesdunari 6.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion.

Goian aipatu dugun ordainketa-moduari jarraiki, kopuru osoaren % 50 diru-laguntza eman zen unean ordaindu zitzaion. Gainerakoa Jarduera Ekonomikoen



gaineko Zergan (JEZ) alta eman zenetik urtebete igarotakoan ordaindu beharko zen.

Urte hori igarotzean, beste erdia ordaintzeko eskatu zuen eta bere ustez horretarako baldintza betetzen zuela justifikatzen zuen dokumentazioa aurkeztu zuen.

- 3- Bigarren zatia ordaintzeko eskaera hori, 2010eko urriaren 28an aurkeztutakoa, ezetsi egin zen. Izan ere, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, diruz lagundutako jarduera eten egin zen 2010eko abuztuan eta baja eman zitzaion JEZen. Inguruabar hori kontuan hartuta, Lanbidek laguntzaren gainerakoa ordaintzeko eskaera ezetsi zuen eta dagoeneko ordaindutako kopurua itzultzeko espedientea ireki zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, kexa hau idatzi da, interesduna ez dagoelako ados Lanbideko zuzendari nagusiaren 2011ko azaroaren 2eko ebazpenarekin, hau da, prozedura amaitu eta dagoeneko ordaindutako diru-laguntzaren % 50a itzultzeko erabakiarekin.

### Gogoetak

1. Diru-laguntzak ebazteko ardura duen organoaren ustez, interesdunak 2009ko martxoan hasi zuen jarduera (diruz lagundutakoa) 2010eko abuztuan eten izana deialdiaren kontra doa eta arau-hauste bat eragiten du.

Arau-hauste hori benetakoa ote den da eztabaida.

Diru-laguntzen gaineko gatazkak aztertzeko, horien deialdietan aurreikusitako irizpideak egiaztatu behar ditugu. Izan ere, laguntza publikoak zein jarduerataro bideratuko diren erabakitzea eta baldintzak ezartzea eskumen-erabakien eremuko gaiak dira, baina horien arauetan baldintzak ezartzen badira, bertan ezarritakoa bete beharko da une oro.

Kasu honetan, laguntzak Kultura Ekintzailea eta Enpresa Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuan araututa daude eta ez dugu ikusi jardueraren iraupenari buruzko baldintzarik dagoenik, diru-laguntzaren galera arau-hauste horri egotzi ahal izateko.



Horren harira, garrantzitsua iruditzen zaigu zera azpimarratzea, nahiz eta kexaren xedeari dagokionez ondorioa ez den hemen proposatutako bera, Lanbideren 2011ko azaroaren 2ko ebazpenak, ordaindutako kopurua ezetsi eta erreklamatzeko duenak, aitortu egiten du Dekretu honek ez duela jardueran iraun beharreko gutxieneko eperik ezartzen.

Aurrekarietan adierazi dugun bezala, 328/2003 Dekretuak, ekimen hauetarako diru-laguntzei buruzko IV. kapituluan, honakoa soilik ezartzen du: diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 50 hura ematerakoan ordainduko da, eta gainerakoa behin urtebete igaro ondoren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako alta-egunetik. Ez da ezer eransteko jardueraren jarraitutasunari buruz.

Lanbideko zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko ebazpen errepikatuek ez du argibide gehiago ematen kexa honen erabakia arrazoitzen duen arau-hausteari buruz, laguntzen emakida arautzen duen deialdian ezarritako betekizunei dagokienez.

Kexa ikuspuntu honetatik baloratuta, Lanbideri informazioa eskatu genion, laguntza indargabetzea erabakitzeko orduan bere ustez zein betekizun hautsi zen jakin ahal izateko.

2. Eskaera horren erantzunean adierazi zitzaigunaren arabera, 328/2003 Dekretuko IV. kapituluan aurreikusitako diru-laguntzaren xedea langabetuek beren lanpostu propioa sortzea eta horretarako enpresa-jarduera garatzea zen.

Sortutako lanpostuagatik aurreikusitako 6.000 euroko laguntza hori 329/2003 Dekretuko II. kapituluan aurreikusitako diru-laguntzaren zenbateko bera da. Azken horrek diruz laguntzen du besteen konturako kontratu mugagabea egitea.

Azaldutakoaren arabera, 328/2003 eta 329/2003 Dekretuetan aurreikusitako laguntzen zenbatekoen arteko baliokidetasuna nahita ezarri zuen Enplegu Sailak, horiek arautzean. Erantzunean gaineratu zenez, bi arauetako batek ere ez du ezartzen diruz lagunduko den jardueraren gutxieneko iraupena laguntzarako eskubidea mantendu ahal izateko, iraupen mugagaberako eta egonkortasun-asmoz sortu (enpresaren kasuan) edo hitzartu (kontratazioaren kasuan) behar diren kasuak direlako.





Enpresak sortzeko laguntzari erreparatuz gero, Lanbideren ustez langileak bere konturako jarduera eteten badu, diruz lagundutako jarduera desagertu egiten da, eta, beraz, laguntza eragin duen arrazoa indargabetu egiten da. Betebehar nagusia ez da lanpostu propioa sortzea soilik, baizik eta berau enpresa-jarduera bat garatzearen bidez mantentzea, hori baita laguntzaren xedea.

Bestalde, laguntza bi erditan ordaintzeak eta bigarren zatia enpresa-jarduera hasi ondorengo urtebetera atzeratzeak (langilearen enpresa-jarduerak jarraitzen duela egiaztatuz, besteak beste) ez du esan nahi jardueraren gutxieneko iraupena urtebetekoa izan behar denik. Diruz lagundutako jarduerak jarraitzen duela egiaztatzeko modu bat baino ez da, hau da, interesdunak jasotako laguntza osoa gehiegi luzatzen ez dela egiaztatzeko modua.

Txostenaren amaieran ezarritakoari jarraiki, diru-laguntza osorik ordaintzeak ez du esan nahi onuradunari gerora ikuskapenak egin ezin zaizkionik, betiere, adierazi den bezala, ekintzaren preskripzioak ondorioak izango dituen epearen barruan.

3. Arartekoaren iritziz, Lanbideren erantzunak argi eta garbi azaltzen ditu hartutako erabakiaren arrazoiak. Hala ere, horien deialdiaren esparruan aztertuz gero, segurtasun juridikoko arrazoiak direla-eta ez zaigu bidezkoa iruditzen laguntza indargabetu eta ordaindutakoa itzultze aldera hartu den erabakia nahikoa justifikatzen denik.

Izan ere, Administrazioaren diru-laguntzek funts publikoak banatu beharra eragiten dute eta banaketaren printzipio horrek bete egin behar ditu aurretik onuradun posibleek ezagutu beharko dituzten baremo, parametro edota irizpide objektiboak (EAEko Ogasun Nagusia antolatzen duten printzipioei buruzko ekainaren 19ko 7/1997 Legeko 49.4 artikulua).

4. Lanbideek jarraitutasun mugagabea diru-laguntzaren baldintza gisa kontuan hartu behar den faktorea dela justifikatzeko egiten duen interpretazioak itxuraz logikoa dirudi. Hala ere, interpretazio hori aztertzean aurkitzen dugun lehenengo oztopoa zera da, 328/2003 Dekretuan jasotako baldintzen artean ez dela halakorik aurreikusi.





Aipatu 328/2003 Dekretuan aurreikuspen hori falta arren iraunkortasun mugagabearen irizpidea aplikatu behar dela azaltzeko, Lanbidek kontrataziorako laguntzak arautzen dituen beste arau bat ekarri du mahai gainera interpretazio-elementu gisa, enplegurako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua, hain zuzen ere. Hori horrela, xedapen honek ere ez duela gutxienerako iraupen-eperik ezartzen adierazi du. Izan ere, bi dekretuek jarraitasun-asmoa duten jarduerak sustatzea dute xede.

Egia da bi arauetan langabeziaren aurka borrokatzeko neurriak sustatzen dituzten jarduerak jasotzen direla. Hala eta guztiz, deialdi bereziak dira eta halaxe dira beren araudiak ere. Horrenbestez, beren eremuak desberdinak direnez, ezin dira baliokideak bailiran alderatu.

Halaber, kontratazio mugagabeak sustatzen dituen enplegurako laguntzei buruzko 329/2003 Dekretu horrek jardueraren iraupena ezartzen du baldintza orokorren artean, gure kasuan aplikatu beharreko dekretuak ez bezala. 24. artikulua honakoa jasotzen du enpresa onuradunen betebeharren artean: – *Diruz lagundutako kontratazioak egiten direnean edo aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen direnean dagoen plantilla finkoaren enplegu-mailari eustea kontratua egin eta ondorengo hiru urteetan.*

Sustatutako jardueraren iraupenari dagokionez, enplegua sustatu eta langabezia-egoeran daudenak babesteko presazko neurriei buruzko uztailaren 30eko 22/1992 Legearen eremuak ere aurreikusten du kontratu mugagabedun enplegu egonkorrak sortzeko laguntzen onuradunek plantillan mantendu beharko dituztela langile finkoak gutxienez hiru urtez.

Ohar hauetan oinarrituta ezindu dugu onartu, hala ere, denbora mugagabea deialdi hauetako baldintza inplizitua dela dioen interpretazioa. Halaber, ezin dugu onartu ekintzen preskripzioaren ondoriozko mugagatik ez balitz, administrazioak edozein unetan erreklamatu ahalko liokeela laguntza itzultzeko diruz lagundutako jarduera eten duenari.

5. Hori guztia kontuan hartuta, pentsa liteke deialdian jardueraren iraupenari buruzko betekizunik ez dagoenez, deialdira sartzeko baldintzak bete eta laguntza aitortu denean, jardueraren hasiera formalki egiaztatze hutsak diru-laguntzaren erdia jasotzeko eskubidea ematen duela eta gainerakoa urtebeteko



iraupenaren araberakoa izango dela (ordainketa egiteko, JEZren inguruan adierazitakoa bete beharko da). Horrenbestez, edozein onuradunek bermatuta edukiko luke emandako laguntzaren erdia jasotzeko eskubidea.

328/2003 Dekretuak ez duela jardueraren iraupenaren baldintza hori ezartzen onartzeak (aipatu bezala langabeziaren aurka borrokatzeko beste eremu batzuetan iraupena aurreikusi da), ordea, ez du nahitaez ondorio hori sortzen.

Deialdia horrela ulertuz gero, legean iruzur egin dela pentsa liteke eta aipatu diru-laguntzei aplikatu beharreko printzipioak zorrotzasunez aplikatu direla iradoki lezake, helburua sarbide-aukera berdinak ahalbidetzea eta bi alderdiei segurtasun juridikoa eskaintzea bada ere.

6. Diruz lagundutako jarduera garatzeko eska daitezkeen baldintzen artean ez denez iraupen-epea arautu, 328/2003 Dekretuan ezarritakoen artean bilatzen hasi gintezke, zehazki, ordaintzeko moduari eta laguntzen justifikazioari buruzko 45. artikuluan (diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 50 ordainduko da hura ematerakoan, eta gainerakoa behin urtebete igaro ondoren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako alta-egunetik).

Hala ere, bat gatoz Lanbiderekin, xedapen hori ez baita jardueraren iraupena ezartzen duen baldintza bat, eta, beraz, jardueran urtebete baino gehiago jarraitzeak ez duelako esan nahi diru-laguntza osoa jasotzeko eskubidea lortu denik nahitaez.

Bestalde, 329/2003 Dekretuak dio mugagabe bihurtu diren enpleguak hiru urteko epean mantendu behar direla, baina betekizun hori ez zaigu aplikagarria iruditzen, deialdien eremuak desberdinak direla kontuan hartuta.

7. Ondorioz, jardueran egon beharreko iraupenari buruzko betekizunik ez dagoenez, ikuspuntu hertsiki juridikotik zera esan daiteke, interesdunak laguntza osoa jasotzeko eskubidea duela, betiere gainerako % 50a jasotzeko baldintza betetzen duela egiaztatzen badu. Kasu honetan halaxe da, lehenengo ordainketatik urtebete egon baita altan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

Baina, era berean, bidezkoa da garatutako jarduera aztertzea, 2010eko abuztuan zergatik eten zen ikertuz, eta, horren arabera, kopuru osoa ordaindu behar dela ondorioztatzea, edo, bestela, 6.000 euroko kopuru osoa itzuli edo murriztea, kalkulu proportzionalan oinarrituta.





Horixe planteatu dugu, beraz, deialdi honen testuinguruan. Izan ere, araudirik ez dagoenez, Lanbideren erabakia arrazoitu dezaketen presuntzioak *iusuris tantum* izan behar direla iruditzen zaigu -kontrakoa frogatu daitekeen arren-, laguntzak jaso dituenak deialdiaren xederako erabili duelako dirua eta ez bere ekonomia saneatzeko.

Egindako ikerketaren ondoren argi geldituko balitz ordaindutako dirua ez dela emakidaren xederako erabili, logikoki ondorioztatu daiteke dirua deialdiaren asmoa ez zen batera bideratu dela.

Jardueran egon beharreko iraupen-baldintzak ezartzen ez dituen deialdiaren esparruan, eta kontuan hartuta lehen azaldu ditugun arrazoiaren ondorioz ezin dela pentsatu jarraitutasun mugagabea eskatzen denik, laguntza emakidaren xederako erabili den eta jarduera benetan garatu den egiaztatu beharko litzateke.

Hori ikertuta ondorioztatu liteke ea interesdunak jarduera hasteko gastuak egin eta justifikatu dituen, edo, proportzionaltasunaren irizpidea aplikatuta, benetan erabili ez den kopurua itzuli behar den.

8. Pentsa liteke ohar hauen xedea zera dela: kontuan hartu behar dela jarduera hauen hasierak eta garapenak arriskua eta ziurgabetasuna sortzen dizkiola egiten dituenari. Ez da hori, ordea, ohar hauen asmoa eta ez dute laguntza publikoen nahitaezko kontrola gutxietsi nahi. Baina gogoan izan behar dugu planteatu ditugun eragozpen hauek ez liratekeela beharrezkoak izango 328/2003 Dekretuak jardueraren iraupenari buruzko betekizunak ezarri izan balitu.

Betekizun horiek falta direnez, Lanbidek hartutako erabakia ez zaigu egokia iruditzen, aurreikusi ez den baldintza baten betearazpen-faltan oinarritzen dela kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Arartekoa izeneko erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





### **37/2012 GOMENDIOA, martxoaren 6koa, Lanbideri egina**

1. Lanbideko zuzendari nagusiaren 2011ko azaroaren 2ko ebazpena berrikusteko, XXX jaunari emandako diru-laguntzak itzultzeko erabakiari dagokionez, Kultura Ekintzailea eta Enpresa sortzeko aukera babesten duen 328/2003 Dekretuan jaso ez den baldintza baten (jardueran era mugagabea irautea) betearazpen-faltan oinarritzen delako.
2. 328/2003 Dekretuan ezarritako irizpideetan oinarritutako ebazpen berri bat egiteko, interesdunari eskaera ebatziz, laguntza emakidaren xedea betetzeko erabili ote den egiaztatuta.

